



TXIKI!

2022ko azaroa 211. zenbakia



SARE SOZIALAK IKERTZEN

AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	DENBORAPASAK	11-13
IKASLEEKIN	4-5	LEHIAKETA	13
BERRIKETAN		ZER IRAKURRI	14
IKASTETXEETAKO.....	6-7	BITXIKERIAK	
BERRIAK		IPUINA	15
ETXEKOEKIN		ZU BAI MARGOLARI...	16
BERBETAN	8-9		
NI BAI ARTISTA	10		

 eta kitto!
euskara elkarteak

Argitaratzailea
“...eta kitto!”
Euskara Elkarteak
Urkizu, 11
20600 Eibar
Tel: 943 206776

**Erredakzio-
kontseilua**
Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Ekhi Belar

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





Gizon bat medikuarengana joan zen eta esan zion:

- Arazo bat daukat. Nire puzkarrek ez dute usainik.
- Hori ez da posible. Bota ezazu bat oraintxe bertan!
- P P P P P R R R R R R R R R R R!
- Hori larria da. Ebakuntza behar duzu.
- Ipurdian?
- Ez gizona, sudurrean



Ume batek bere lagunari:

- Nire aitak 10 urtetan ez du ilerik moztu!
- Zer da ba, artista bat?
- Ez, burusoila.

Bi saguzahar txintxilizka zeuden eta saguzahar batek galdetzen dio besteari:

- Zein izan zen zure egunik txarrena?
- Kakapirri egin nuen eguna.



Zeroen festa batera zortzi bat etorri zen.

Zero guztiek esan zioten:

- Ez al zara konturatu hau zeroen festa dela?

Eta zortziak erantzun zuen:

- Ezin dut zinturoia jarri?



9

Seien festa bat zegoen eta bederatzi zenbakia sartu zen atetik. Sei zenbakiek esan zioten:

- Baina ez al dakizu seien festa dela?

Bederatziak erantzun zuen:

- Ezin naiz pino egiten etorri ala?

Egun batean Juanito matematikako ariketak ikasten zegoen eta andereñoak galdetu zion:

- Zenbat da 2×2 ?
- Enpate!
- Eta zenbat da 2×1 ?
- Eskaintza!





SARE SOZIALEN ARGITZALAK AZTERGAI



BIDEOA



Amaña herri-ikastetxeko ikasleek sare sozialen inguruko inkesta egin dute ikaskideen artean eta egindako lanaren ondorioen berri eman digute.

MARIA CORDOBA,
10 URTE



Gelan sare sozialei buruzko inkesta egitea proposatu genuen zein, zenbat eta zertarako erabiltzen diren jakiteko. Hau, zoritxarrez, eskoletan eta institutuetan cyberbullynga indarrean dagoelako sortu da. Horretarako, gure gelan galdetegia prestatu eta guztiok erantzun genuen.

IMAN ABAINOU,
10 URTE



Galdetegiaren lehenengo galdera hau izan zen: zer dira sare sozialak? Guztiok gauza bera erantzun genuen: komunikatzeko, informatzeko eta entretenitzeko kanal digitala direla, eta momentuz horretarako erabiltzen ditugu. Bestetik, gehienek esaten dugu sare sozialen bitartez komunikatu gaitzkeela, jolastu ahal dezakegula, eta abar.



ELENA HORCAJO,
10 URTE

Honako hauek dira ezagutzen ditugun sare sozialak: Twitter, Google Play, Tik Tok, Facebook, WhatsApp, Gmail, YouTube, Messenger, Discord, Snapchat, Instagram eta Duolingo. Hala ere, batzuk bakarrik erabiltzen ditugu: WhatsApp, YouTube, Discord, Tik Tok, Google Play, Snapchat, Duolingo eta Twitter. Sare hauek familiarekin hitz egiteko, informatzeko, jolasteko, entretenitzeko eta lanak egiteko erabiltzen ditugu.



ASMAA ZAGARI,
10 URTE

Gehienek noizbait idazten dutela esaten dute: hitz berriak, sinonimoak, dantzak egiteko, ingelesa, bitxikeriak, gauzak egiten ikasteko (sukaldaritza, eskulanak)... Askok oraindik ez dugu telefono mugikor propiorik eta gurasoena erabiltzen dugu. Gurasoek diote oraindik ez dugula mugikorra erabiltzeko adinik, gure hobe beharrez.



DANEL GONZALEZ,
10 URTE

Ikaskide batzuk egunero erabiltzen dute gurasoen mugikorra eta gainontzekoek asteburuetan (kanpoan bizi den familiarekin berba egiteko, jolasteko, lagunekin geratzeko, etxeko lanak egiteko...). Gaur egun, batzuetan sare sozialak gaizki erabiltzen dira: mehatxatzeko, borrokatzeko, min egiteko, lapurtzeko, besteen kontuetan sartzeko...



WALID AMAR,
10 URTE

Gela osoaren pentsamendua da datuak ezezagunei ez ematea (telefonoa eta helbide pertsonalak) eta kontuz ibiltzea zenbait programekin. Izan ere, gelako guztiak haserretzen bagara, emandako guztia gure aurka erabili daiteke. Gure lema hau da: ez saiatu min egiten, gero berak salaketa ipini ahal duelako.



ARRATEKO ANDRA MARI

Kaixo lagunok! Hemen gaude berriz ere izan ditugun eta egingo ditugun ekintzen berri emateko. 5. eta 6. mailako ikasleek, urriko azken asteetako soinetako saioetan, mendi irteeratxoak egin zituzten. Arimen gaua ere ospatu genuen eskolan. Gela bakoitzak, kalabaza, mamu... kareta egin zituen, Bestalde, Euskal Herrian jai hau nola ospatzen zuten gogoratu genuen. 6. mailako ikasleek izara zaharrak jantzi eta gelaz-gela joan ziren “Xanduli manduli kikirriki, eman goxokiak guri” euskarazko formulatxoak esanez. Azaroaren 14ean Gaztañerre eguna ospatu genuen, abestu eta bertsoak bota ondoren, gaztainak jan genituen!!!



AMAÑA

“Eeoa eoa” hori da 2 urtetik 6. mailara arteko ikasleek eta irakasleek ezer baino lehen ikasi genuen abesti zatia. Amañako herri-eskolan kantari gabiltza: hilero abesti berri bat ikasten hasiak gara, gero denok batera, txiki eta handi elkartuta, patioan abesteko. Aurrenekoa Zetak taldearen “Itzulera” izan zen eta haren atzetik Xabi Solanoren “Erre zenituzten sorginak” entzun eta ikasteari ekin diogu. Azken honetan, trikitixa eta pandero-soinu artean, abeslariak irrintziak botatzen dituztela ikusita, ausartuko ote gara gu ere?

SAN ANDRES

Azaroaren 4an 5. mailako ikasleak Bergarako Laboratorium museora joan ginen. Hiru orduko bisita egin ondoren gauza asko ikusi, ikasi eta frogatu genituen. Museo honetan XVIII. mendetik aurrera Euskal Herritik eta kanpotik etorritako zientzilariek erabiltzen zituzten tresnak, animalia-bildumak eta argitaratutako liburuak ikusteko aukera izan genuen. Dibertigarriena gero etorri zen, bertako laborategian hiru esperimentu burutu genituen. Oso dibertigarria izan zen!





LA SALLE

Urriarekin batera udazkena ailegatu zaigu. Hile honetan LH1.,2. eta 3 mailakoak Coliseora joan ziren Tinkoko filma ikustera. Arratsaldea primeran pasa zuten, eta eskertzekoa izan zen eskolako umeen portaera. Bestalde, 5.mailakoak urrutiagora joan ziren. Iparizarra proiektuaren barruan, Pasaiara joan ziren, Albaola Itsas Kultur Faktoria ikustera. Bertan euskal bale arrantzaleen bizitza ezagutzeaz gain XVI. mendeko San Juan baleontziaren eraikuntzaren lekuko izan ginen. Behin hori ikusita Pasai Donibanera joan ginen bazkaldu eta egunaz gozatzerara.



URKIZU



5. mailakoak Donostiako Eureka museoan izan ziren. Kontu ugari ikasi zituzten gure planeta eta unibertsoari buruz. Oso interesgarria izan zen. 3. eta 4. mailakoak, berriz, Urdaibai Bird Center-era joan ziren. Bertan, hegaztien migrazioari buruzko gauza asko ikasi zituzten. Bestalde, "Ezetx asmatu" lehiaketaren ikasturte honetako lehen ekitaldia egin genuen. Antzerkitxoa dibertigarria izan zen eta a ze emozioa zozketan! Euskarak sari ederrak ekartzen ditu batzuetan. Azkenik, LH 1.eta 2. mailakoak Coliseora joan ziren "Zutik" filma ikustera. Zintzo-zintzo egon ziren pantailari begira, filma interesgarria zen nonbait.

ITURBURU

Agur bero bat Iturburu ikastolatik! Gure ikastetxeko 4. mailako ikasleak Irisarrilandera joan ziren azaroaren 3an eta 4an. Bertan tirolinaz gozatu eta ibilaldiak egin zituzten, nahiz eta eguraldia lagun ez izan. Ederki pasatu zuten eta gaua elkarrekin igarotzea ere oso bizipen polita izan zen. Berriz ere errepikatze modukoa!



ALDATZE

Aldatze ikastetxeko LH 4. mailako ikasleek "Ozeanoak garbi nahi ditugu" lelopean lan bikaina egin dute. Egungo ozeanoen egoeraz jabetuz, gure eragina hausnartuz eta bakoitzaren erantzukizuna gogoan hartuz. Bestalde, gure ikastetxeko LH 4., 5. eta 6. mailako ikasleak Arratera joan ginen. Gure Eskolabarriko lagunekin batera egun zoragarria pasatu genuen elkarren arteko harremanak areagotuz. Eta, amaitzeko, azaroaren 18an Proidentzi Eguna ospatu genuen eskolan eta berriz gonbidatu genituen elkarrekin egun bikaina pasatzeko asmoz. Eta horrela izan zen! Primerako eguna pasa genuen!





Iñigo Arkotxa:

«Orain auto, etxe eta kale gehiago dago Eibarren»

Aritz Mekolalde Iñigo Arkotxa osaba elkarrizketatu du. 10 urte ditu ilobak eta 67 osabak, baina bion arteko harremana oso estua da eta asko maite dute elkar.

- Kaixo osaba, zer moduz zaude? Zer iruditzen zaizu esperientzia hau?

Ondo! Beno ba, hau amaitutakoan esango dizut esperientzia nolakoa iruditu zaidan.

- Noiz eta non jaio zinen?

Mutrikun jaio nintzen orain dela urte asko.

- Zer oroitzapen dituzu ume denboratik?

Oroitzapenak ia galduta ditut dagoeneko, baina gauza politak gogoratzen ditut. Gauzak ezberdinak ziren sasoi hartan, gazteen artean giro gehiago zegoen. Orain, gauzak aldatu egin dira gazteen eta ez hain gazteen artean.

- Zeren falta igartzen duzu?

Koadrilako eta auzoetako giro hori faltan botatzen dut. Ikastoletan koadrilak egiten ziren, baina auzoetan ere.

- Ze eskolatara joan zinen?

Eibarrera etorri nintzenean, frontoi zaharrearik ikasi nuen Carmen Irusta andereñoarekin lehenik eta Esteban jaunarekin gero. Ondoren, Sagrado Corazonera joan nintzen, Isasi kalera. Batxilergoa amaitu nuenean Armeria Eskolara joan nintzen eta Agirre (Eibarko alkatea izandakoa) eta Bittorio irakasle famatuak izan nituen. Gero, horrekin aspertu eta arotzeria ikasi nuen. Harrezkero, arotza izan naiz jubilatuta arte.

- Nola gogoratzen duzu eskola?

Frontoi zaharrearik, Carmen Irustarekin, txarto. Esteban jauna, oster, oso jatorra zen. Sagrado Corazonen irakasleak fraideak ziren eta oso esku gogorrekoak ziren.



- Zelan konpontzen zineten eskolan Internet gabe?

Ez zitzaigun falta Internetik eskolan. Uste dut gaur egungo gazteak beldurtu egingo lirakeela gure irakasgaiekin. Egunero zortzi irakasgai ematen genituen. Mota askotako marrazkiak egin behar izaten genituen eta etxeko lanak egin arte ezin izaten genuen jolastu. Den-dena buruz ikasten genuen: historia, ibaiak, mendiak...

- Nola moldatzen zineten telefono mugikor barik?

Kalean telefono-kabinak zeuden eta, behar izanez gero, hortik deitzen genuen. "Ama, gaur ez noa afaltzera, lagunekin kalean geldituko naiz", abisatzen genion amari, adibidez.



Osabarengandik jaso du Aritzek sukalde-zaletasuna.



Bandera eskutan ezkerrean ageri da Iñigo.

- Umetan zertara jolasten zenuten?

Gauza askotara jolasten genuen. Foballean asko egiten genuen eta baita esku-pilotan ere Txaltxa Zelaiko frontoian. Hori bai, nagusiak etortzen baziren, tokia laga behar izaten genien. Jende asko egoten zen Txaltxa Zelaian foball partiduak ikusten. Bestela, asteburuetan mendira joaten ginen. Arratera igo, pilotan jolastu, handik Kalamuara, gero Ixuara...

- Zenbat zineten etxean?

Bost.

- Eta etxeko gauzetan laguntzen zenuten?

Handienek txikienei laguntzen zieten.

"Jakín ezkerro, gurasoek euskaraz egin behar dute seme-alabekin, telebista euskaraz ikusi behar da... Euskaraz bizi, azken batean"

- Zer sentitu zenuen etxean telebista lehenengo aldiz ikusi zenuenean?

Ez gauza handirik, etxera ekarri aurretik, tabernetan telebista egoten zen. Gero, etxean, afalorduan pizten genuen telebista eta pelikulak eta marrazki bizidunak ikusten genituen. Ez genion garrantzi handirik ematen telebistari.

- Zelan aldatu da Eibar umea zinenetik?

Orain auto, etxe eta kale gehiago dago. Gauza gehiago daude, baina okerrago. Etxeak bata bestearen gainean eraiki dituzte.

- Noiz eta norekin ikasi zenuen kozinatzen?

Gurasoekin.

- Zein da egiten duzun janaririk gozoena?

Esan zuk.

- Piper beteak oso gozoak daude!

Oilaskoa ere gozoa egiten dugu, ezta? Laban sartuta, patatekin... Ederra!

Zer egin dezakegu Eibarren euskara gehiago entzuteko?

Gurasoek ikastolara bidaltzen dituzte umeak han euskaraz egin dezaten, baina gero gurasoek gazteleraz egiten dute euren artean eta seme-alabekin ere. Horrela ezin da. Jakín ezkerro, gurasoek euskaraz egin behar dute seme-alabekin, telebista euskaraz ikusi behar da... Euskaraz bizi, azken batean.



Lastotxo garaiezina!

Zuek zer uste duzue,, lastotxo batek patata gordin bat zeharkatu dezakeela ala ez? Pentsatu ondo erantzuna e? Beno, zalantza guztiak argitzeko honako esperimentu hau egitea proposatzen dizuegu, aho zabalik geldituko zarete!



OSAGAIAK:

- 2 patata
- Lastotxo 1



NOLA EGIN:

- 1.- Hartu lastotxoa eta ahalegindu zaitezte patata zeharkatzen. Ikusiko duzuen moduan, nahiz eta behin eta berriro ahalegindu, agian lastotxoa txikituko duzue baina patata bere horretan geldituko da.
- 2.- Orain estali lastotxoaren zuloetako bat. Horrek blokeatu egingo du patatan sartuko den aire guztia eta horregatik hartuko du indar gehiago. Segi aurrera eta aho bete hertz geldituko zarete.
- 3.- Hartu berriro lastotxoa eta saiatu zaitezte berriro patata zeharkatzen. Orain bai, ezta? Eta zein erraz!

ORRI-MARKATZAILE MOÑOÑOAK

Behin baino gehiagotan esan dizuet zeinen garrantzitsua den irakurtzea. Etxean ere ziur nago sarri entzun duzuela gauza bera. Ba, irakurketa politagoa eta dibertigarriagoa izan dadin, hara hemen eskulan erraz-erraza. Koloretako gomaeba, begi itsaskorrek, iledun alanbretxoak, artaziak, kuterra eta pegamentua besterik ez duzue behar. Moztu gomaeba zati errektangularrak eta kolore ezberdinetakoak. Margotu sudur handi bat, nahi duzuen itxurakoa eta moztu kuterrarekin. Begiak itsatsi eta antenak jarri munstrotxoei. Eta listo! Hor dituzue orri-markatzaile moñoñoak!





7 DESBERDINTASUNAK



7 desberdintasunak

AURKITU BERBAK



BARRUKO ORGANOK ETA APARATU EDO SISTEMAK

A	R	N	A	S	A	P	A	R	A	T	U	A
U	G	B	A	I	U	H	K	U	Z	O	N	H
T	A	I	E	E	O	S	L	T	D	I	N	Z
A	G	H	L	Z	K	X	D	O	U	X	X	H
A	K	O	L	T	H	A	L	M	O	U	U	K
A	A	T	G	B	Z	A	R	E	I	A	H	E
P	E	Z	B	I	K	U	A	T	T	U	E	M
A	T	A	M	R	B	E	R	X	R	X	Z	Z
Z	S	H	K	I	J	E	U	R	P	N	U	A
T	E	S	D	K	T	R	L	P	U	O	R	I
I	H	R	P	A	X	Z	O	A	N	N	R	N
A	L	I	Z	K	U	R	D	A	I	L	A	A
R	K	T	X	N	M	H	U	O	N	K	K	K
I	H	K	H	U	S	K	U	L	O	A	W	M

- GILTERRUNAK
- BURMUKIA
- GIBELA
- ZAKOAK
- HEBURAK
- PHOTEA
- BERIKAK
- TANKEA
- ARNAS-APARATU MUSKULOAK
- IRATRE-APARATUA
- ODOLA
- URDAILA
- HESTEAK





HIZKI-ZOPA




K	L	P	L	Y	Z	B	Y	U
D	A	O	K	A	S	E	I	L
M	K	L	S	T	J	K	A	X
A	Z	A	A	R	O	A	H	P
R	A	G	I	M	N	E	O	H
R	L	A	Y	A	A	D	D	E
A	M	R	N	N	G	R	R	F
Z	Z	R	R	T	H	U	O	B
O	B	O	M	A	T	Z	D	A
A	M	A	J	N	B	I	O	K

- KALANaroa
- Dordoka
- Izurdea
- Marrotoa
- Olagarroa
- Narta



LABERINTOA





IO EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **ABENDUAK 9** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.




AURREKO ALEKO IRABAZLEA

Aupa Malen Mardaras, txapelduna!
Aurreko aleko erantzunak bikain
asmatu dituzu eta zozketan zeu
irten zara irabazle. Ipuina eta
...eta kitto!-ren motxila zuretako!
ZORIONAK!

**Hiru lehoi** 6 urtetik aurrera


Amonak Duniari mapa zahar bat emanaz esan zion mundu honetatik joan aurretik, berarekin partekatu nahi zuela bere bizitzako sekreturik handiena. Amonak altxor bat gorde zuen berarekin urte luzeetan.

**Zozo ergelak eta azeri gaiztoa** 8 urtetik aurrera

Behin batean, Xoxope eta Xoxopa izeneko zozo bik elkar ezagutu zuten lorategi batean. Erabaki zuten ereinotz hartan habia egitea. Lau zozokumeak jaio zirenean oso pozik zeuden zozo-aita eta zozo-ama. Baina izugarria gertatu zen: herri hartan bazen azeri gaizto bat, Lukianton izenekoa. Munduko azeririk maltzurrena zen.

**Memet** 10 urtetik aurrera

Lucy kanpin batean dago ahizpa nagusiarekin, eta karabanazale europar asko aurkitu ditu han: frantsesak, herbeheretarrak eta ingelesak. Urtero itzultzen direnen artean, Roman gaztea dago, bakarrik maizegi uzten duten mutiko abenturazale eta zakarra. Ez da ezeren beldur. Baina buru berri bat aurkituko du bidean, Lucyrena. Kanpinean elkarrekin egingo duten egonaldi laburrean, bi umeek elkar hezten ikasiko dute.

**BITXIKERIAK**

Jirafa batek mihiarekin garbi ditzake bere belarriak.



Ilargira joan ziren lehenengo pertsonak -Neil Armstrong eta konpainia- ilargian utzi zituzten euren botak.

Matusalen da munduko arbolarik zaharrena. 4.847 urte ditu eta Kalifornian dago.





Lagunen altxorra

Behin batean, lagun batzuekin joan nintzen mendira. Nere lagunak Leire, Ane, Unax eta Nikolas ziren. Leirek ile beltza du, begiak marroiak ditu. 17 urte ditu eta bera oso ona da futbolean jolasten eta matematiketan jenio bat da. Anek ile horia dauka, bere begiak oso politak dira, urdin-urdinak ditu. 16 urte ditu, baina berak astebete barru 17 urte egingo ditu eta oso ona da dantzatzen eta ingurunen. Unaxek ile horia du, begiak marroiak ditu, 17 urte ditu eta futbolean jolastea asko gustatzen zaio. Nikolasek ile beltza du, begiak marroiak ditu. 17 urte ditu eta Unaxi bezala asko gustatzen zaio futbolean jolastea.

Ni Ainhoa deitzen naiz, ile beltza dut, begiak urdinak ditut, 17 urte ditut, eta gehien gustatzen zaidana egitea gimnasia erritmi-koa da.

2021eko uztailaren 8an mendira joan nintzen nere lagunekin. Gu ibiltzen eta hitz egiten gindoazenean Nikolasek paper bat aurkitu zuen zuhaitz baten ondoan.

Nicolasek esan zigun:

-Etorri lagunak, paper bat aurkitu dut!-

Anek esan zion Nikolasi:

-Nikolas, baina hartu papera, igual inportantea da-

Nicolasek hartu zuenean papera, maitagarri batzuk atera ziren. Guk ez genekien zer ziren eta maitagarri batek esan zigun:

-Kaixo lagunak, gu mendiko maitagarriak gara eta aurkitu duzuen altxorra aurkitzeko plano bat da, baina gauza bat, hau oso inportantea da, mendiko munstroa konturatzeko bada papera hartu duzuela oso hase-re jarriko da. Aurkitzen duzuenean ekarri ziztu bizian. Ulertuta?-



Guk baietz esan genion maitagarriari. Maitagarriak desagertu ziren. Guk gure abenturarekin jarraitu genuen.

Altxorra aurkitzen landare eta animalia asko aurkitu genituen. Bat-batean bide oso arraro batetik joan ginen, eta nik galdetu nuen:

-Ez gara galduko? Bide hau oso arraroa da. Leirek esan zuen:

-Bai, bide hau oso arraroa da-

Unaxek esan zuen:

-Ez, ez gara galdu, altxorraren paperean bide hau dela esaten du-

Bat-batean mendiko munstroa ikusi genuen eta ezkutatu ginen. Joan zenean munstroa altxorra aurkitzen jarraitu genuen.

30 minutu pasatu zirenean Anek esan zuen:

-Begira altxorra aurkitu dugu!-

Denak pozik jarri ginen, altxorra hartu eta zuhaitzera joan ginen berriro altxorraren mapa lagatzera.

Abentura eta gero 20:30ean denok etxera joan ginen.

Hurrengo egunean Nikolas lotan geratu zen gau osoa mendian ametsetan pasatu zuelako, horregatik Unaxekin zuen futbol partidura berandu heldu zela esan zidan.

Honekin, hori hala bazan, sartu dadila kalabazan eta atera dadila Untzagako plazan.

MALEN ROMAN

ZU BAI MARGOLARI!

